

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Elantxobe



Aurkibidea

Udalerria: Elantxobe

Sarrera



Elantxobe Bizkaiko kostaldean dagoen udalerria da, Busturialdea eskualdean. Elantxobetik iparraldera Bizkaiko Golkoa dago, eta hegoaldean Ibarrangeluko udalerria. Ogoño mendiaren ekialdeko magalean 150 metroko altueratik itsas mailaraino iristen da, bertan arrantza portua kokatzen delarik. 1527. urtean arrantzatik bizitzeko asmoz sortua Ibarrangeluko portu moduan, garrantzia izan zuen portu eta defentsarako postu bezala. 1854an Ibarrangelutik banandu eta udalerri burujabe bilakatu zen. XX. mendean hirira egondako migrazioek herriaren biztanleria asko murriztu zuten. 1900an Elantxobek 1.200 biztanle izan zituen arren, ondorengo urteetan Bilbora eta Gernikara joan ziren elantxobetar asko. Herriak jaiegun ezberdinak ditu: San Pedro, Karmengo jaiak, Madalen eguna, eta Elantxobeko patroia den San Nikolasen eguna.

Argazkia: Ander Abadia Zallo

- **Biztanleak:** 443
- **Euskaldunak:** %86,9

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **33**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **33**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus

Hizlariak

Kontxa Gonzalez Badiola (1928)



1928. urtean jaio zen Elantxobeko herrigunean bertan. Ama bertakoa zuen eta aita Galiziatik herriko moila egitera etorritako igeltseroa. Eskolara gutxi joan ei zen eta ahizpa nagusiak irakatsi zion dakiena. Gazterik hasi zen herriko kontserba-lantegian antxoei burua kentzen. Ibarrangeluko senarra izan zuen eta Zornotzara joan ziren bizi izatera, han jaio ziren beraien 2 seme-alabak. Elkarrizketa egin baino 6 urte lehenago Markina-Xemeinera joan zen bizitzera.

Juanita Montero Bilbao (1923-2010)



1923ko abuztuaren 13an jaio zen Gernika-Lumoko [Ocho de Enero](#) kalean, gero [Erresteria](#) auzora joan ziren bizitzera. Zazpi urterekin Ibarrangeluko Antzora auzora joan ziren. Tarte horretan 15-16 urterekin hilabete Gernika-Lumon pasatu zuen neskame legez, eta sei hilabetez Bermeoko zoroetxean egon zen bertako gaixoak jagoten. 17 urterekin Elantxobeko portuko etxe batera joan zen familia guztia. Bere ama muxikarra zen eta bere aita Santanderren jaiotako elantxobetarra. Bere aita eta aitona karabineroak izan zirenez, beti egon dira itsasora oso lotuta. Elantxobeko Luis González Badiolarekin ezkondu ostean Erdi kalean bizi izan zen 19 urtez, baina berriro bueltatu ziren portura bizitzera. hiru seme-alaba izan zituzten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. San Vicente de la Barquerara ihes

- **Hizlaria(k):** Gonzalez Badiola, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** ELA-002/003
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:02:56. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, Elantxobetik ihes egin zuten Bermeora eta handik San Vicente de la Barquerara (Kantabria) gerra amaitu arte. Bi neba izan ziren soldadu gerran, eta haiek etxera itzuli arte amak asko sufritu zuen, 50 kilo galdu zituen.

Transkripzioa

- Gero, gerria hasi zaniien, en el trentai... tres o seis, no sé.

- Seis.
 - Seis.
 - Siete hemen.
 - Yo tenía pues e...
 - Euskeraz ein biher da, e.
 - E ba nik ba zenbat euki naban, zazpi urte? Ta jun giñin Elantxobetik Bermiora, ta eskapata. Ta gero, Bermiotik jun giñin San Vicente de la Barquerara. Baia hori ez [dast] akordaten nun jun giñin, edo trenin, o barkun; hori ez dakit. Ta han eon giñin gerrie akabau arteko. Gero gerrie akaba zanin, ba, etor giñin e... atzera Elantxobera. Ta gero, ba, [sorosin], ba, mutillek ondiño gerran ebizen ondiño, Luis ta Patxi. Nire amak eukin... pisaten eban ehun ta bost killo, bera zan altie, ta harek han gerran [zaon] arteko geldittu zan berrogeta hamar killora arte; ez eban.. ez jan be ez, ta lorik be ez, beti harexen pentsamentuaz ta bueno... geratu zan erropak be danak jausi eitten [datzozen].

1.2. Ezagutu ez gerratik itzuli zen neba

- **Hizlaria(k):** Gonzalez Badiola, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** ELA-002/004
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Neba nagusia ez zuen ezagutu gerratik itzuli zenean. Luzaroan egon zen kanpoan neba zaharrena, Italiara eraman baitzuten. Belarria lehertuta itzuli zen etxera, gortuta, eta operatu egin zuten.

Transkripzioa

- Gero ya etor zienien, ba nik nagosixe ya ezautu be ez naban /enaban/ ein. Patxi etor zanien, ezautu be ez. Ta gero zer?
 - Ta nondik ibili zien ba?
 - Gerran? Ba frentin. Gero nausixa Italiara-ta erun [otsezien] lez, ba, han tarda eben harek gehixau etorten. Ta bueno. Ta etor zan e... bonbak botaten [otsezela] belarrixe errebentata, ta ez eban entzun be eitten. Ta gero, ospittelin Basurton opera ein [eutsoen] /eitzoen/ de la... trapeñacion edo ez dakit zelan esaten eutsoen /esatetzoen/, ta ya geratu zan apurtxu bat gorra, baia... majo geratu zan.

2. Familia eta harremanak

2.1. Koipea artiletan bilduta egiten zen pilota

- **Hizlaria(k):** Gonzalez Badiola, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** ELA-002/017
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:18:42. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena:** Eskolan atsedendian jolasten zuten: txapekin, kromoekin edo frontoian pilotaka eliza atzeko frontoian. Harakinak emandako koipea artileaz bildu eta egiten zituzten pilotak. Eskuz jolasten zuten, mutilek eta neskek batera. Panpinak trapuzkoak ziren.

Transkripzioa

-Eta eskolara esan dozu gitxi, baina olgeu eingo zenduen?
 -Olgeu bai, errekreuen. Bai, haultan, txapakin ta, kanikakin ta... kromukin ta. Haixe zan, besterik ez egon ta... Edo frontoien pelotaka, edo...
 -Frontoien, oin dauen frontoien?
 -Bai.
 -A bai? Lehen be egon zan.
 -Bai. Han elixin atzin. Bai. Elix da San Nicolás de Bari, baie zelebraten da San Pedro, sanpedruk; bueno, San Nikolas egune be bai, baie zelebra san Pedruk ixeten die.
 -Olgeu, neskak neskakaz, edo...
 -Ke ba! Mutil eta neskak, bai.
 -Bai?
 -Bai. Hortan ez da egon diferentzirik.
 -Pelotarik edo?
 -Pelotan be eurek beti irebaziten eben. Inddar gehixau.
 -Pelotie eukitten zenduen?
 -Bai. Lana, lana zaharrakin einde, karnazeruk emoten doskun koipie imini barruen, ta lana zaharrakin; dale, dale, ta dale, ta dale... ta pelotie, bai. Eskoz; palarik bapez.
 -Ta muñekarik?
 -Ke ba! Pentsa be, muñekarik!... Trapozkuk edo igual. Baie muñekak eta horrek "artículo de lujo" zin.
 -Elantxoben zelan esaten jako muñekieri?... Andrakille edo? ez?
 -Ez jast akordaten. Ez, andrakillie ez da. Panpiñe.
 -Panpiñe?
 -Panpiñe.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ahizpak irakatsitakoa ikasi (ELA-002/006)

Dakiena ahizpa zaharrenak irakatsita daki. Ez zen eskolara joan San Vicente de la Barqueran bizi zirenean. Berak bere kabuz ikasitakoa daki. Neskak eta mutilak bi eskolatara joaten ziren. Liburu bakarra zuten eta bakoitzak bere koaderno. Lehen biztanle gehiago, ume gehiago, arrantzale gehiago eta abade gehiago zeuden Elantxoben.

2. Lehenengo jaunartze egunean bizkarrean elizara (ELA-002/007)

Asko ikasi zuten erlijioa. Lehenengo jaunartze egunean, nebak eraman zuen bizkarrean sandalia berriak ez hondatzeko, oso eguraldi txarra egin zuen-eta. Soinekoa zuria izan zen. Ez du egun hartako argazkirik. Ez du askoz gehiago gogoratzen.

3. Liburu zuria opari (ELA-002/008)

Neskak eta andre alargun bat ziren dotrinako irakasleak. Liburu zuria oparitu zieten jaunartze egunean eskularru zuriekin eramateko. Hiru abade zeuden Elantxoben, bat markinarra. Orain bat dago eskualde guztirako.

4. Kantuan: "Bainua hartun da gero kaltzadatik gora..." (ELA-002/009)

Kantua: "Bainua hartun da gero, kaltzadatik gora, sastarra sartu jatan, ipurditik gora… Pedro Bixente, Bixente Pedro…,"

5. Tito, txistularia, karteroa eta kartak irakurtzekoa (ELA-002/010)

Tito eta Abascal, bata txistularia eta bestea danbor jotzailea. Titok postari lanak ere egiten zituen. Baserri bateko andre bati, Josepa Antoniri, kartak idatzi eta irakurri egiten zizkion Titok. Behin irakurritako karta, isilik gorde beharrean, ahoz aho zabaldu zen.

6. Botoa adreiluen truke (ELA-002/011)

Lehenengo errepublikako hauteskundeetan, bi mutilzahar zeuden baserri batean. Botoaren truke zementua eta adreiluak eskatzen zituzten. Gehien eskaintzen zuenari, hari botoa.

7. Elantxobeko Batzokia Bizkaiko lehena (ELA-002/012)

Bizkaiko lehenengo Batzokia Elantxobekoa izan zela dio. Buruzagi nazionalistek ez zizkioten lanak eman herriko iturginari; baina horrek ahaztu ez, eta konponketa lanak bikoitza kobratu zizkien .

8. "Otoi bat eta gero arte" (ELA-002/013)

EAJko buruzagia zen Gorgonio Renteriak jarri zuen Kanposantuko idazkuna: "Otoi bat eta gero arte".

9. Ogoñon zelatari ogerleko baten truke (ELA-002/014)

Gerra garaian, Francoren gerrako itsasontziak pasatzen ziren Bizkaiko golkotik. Orduan, Ogoño gainean kainoi txiki bat jarri zuten, eta bi gizon zelatari, itsasontzien berri emateko. Lanagatik zilarrezko txanpon bana eman zietenez, gerrak jarrai zezala eskatzen zuten.

10. Ezinikusiek eragindako salaketak (ELA-002/015)

Lehengusu bat hil zen gerran, itsasoan; beste bat lurrean. Kartzelan ere egon ziren. Elantxoben nazionalistak eta faxistak egon ziren. Elkarren arteko ezinikusiek eragindako salaketen ondorioz eraman zituzten preso batzuk. Orain beti irabazten dute nazionalistek.

11. Dendak bai, baina ogia Lekeitiotik (ELA-002/019)

Hainbat denda zeuden: harategia, drogeria, estankoa, eta denetik zuen denda bat, Divina izenekoa. Ogia Lekeitiotik heltzen zitzaien. Arraina arrain-saltzaileek kalerik kale saltzen zuten. Ibarrangelun zeuden errotak, baina ez zuten ogirik egiten. Bestelakoetara Gernikara joaten ziren.

12. Errazionamenduan ere goserik ez Elantxoben (ELA-002/020)

Errazionamendu garaian, errotara joaten ziren irinetan. Kaxan gordetzen zuten, eta amak ikasi zuen taloak egiten. Arraina bazuten eta ortuariak ere bai. Horrela ez zuten goserik pasa. Baserritarrek eta arrantzaleek trukea egiten zuten.

13. Elantxobeko itsasontziak (ELA-002/021)

Zazpi arrainontzi edo, egon ziren Elantxoben. Izenak esaten ditu Kontxak.

14. Arrainaren inguruko lanak (ELA-002/022)

Portuko arraina prestatzen zuten andreek, kamioietan Bermeora eramateko. Itsasoz joaten ziren Bermeora elur (izotz) bila. Kontserba-fabrikan ere egiten zuten lan andrazkoek: gaztetxoek burua kentzen eta helduek latetan jartzen. Hainbat fabrika zeuden: Serratena, holandar batena, eta beste batzuk. Sareetatik arrainak askatzen ere aritzen ziren emakumeak. Mutiko gazteak tretzak egiten.

15. Abadea ere txipiroitan (ELA-002/023)

Txipiroi asko harrapatzen zen. Abadea ere txipiroitan joaten zen; asko gustatzen zitzaion arrantza. Aita igeltseroa zen, baina kanaberarekin haitzetan edo kaian ibiltzen zen arrantzan.

16. San Pedro eta San Pedro txiki (ELA-002/025)

San Pedro egunean denak mezara, ahalik eta ondoen jantzita. Gero, erromeria, bazkaria, pilota-partidak eta dantza. San Pedro txiki egunean, portuko jokoak egiten ziren: estropadak eta kukaina. Udatiarrek ere joaten ziren jaietara eta haiek diru gehiago izaten zuten. Dantzarako gramola bat egoten zen. Domeketan ere erromeria egiten zen gramolarekin. Apaizak behin esan zuen Ibarrangelutik joaten zirenek gauza onik ez zutela eramaten Elantxobera.

17. "Jai alai" filma errodatu zen Elantxoben (ELA-002/026)

"Jai alai" filma errodatu zuten Ibarrangeluko frontoian eta Elantxoben. Lekeition proiektatu zen. Jendea hurbildu zen errodatajea ikustera.

18. Ibarrangelun baserri-giroko jaiak (ELA-002/028)

Corpus jaiak izaten ziren Ibarrangelun. Oinez joaten ziren. Han idi-probak, pilota-partidak eta erromeria.

19. Madalen Eguna Elantxoben (ELA-002/030)

Madalen eguna bermeotarren jaitzat hartzen du, eta herriko goiko aldean kokatzen du. Jende asko joaten dela; portuan gertatutako istripu bat... Ez ditu garbi bereizten oraintsukoa eta gazte denborakoa.

20. Elantxobeko tabernak (ELA-002/032)

Bost taberna-edo egon ziren Elantxoben. Orain gutxiago. Gizonak joaten ziren. Nebaren batekin edo joango zen lehenengo aldiz, mostoa hartzera; ez du gogoratzen.

21. Gaztetan prakarik ez (ELA-002/033)

Prakarik ez zuen inoiz jantzi, egoitzara joan arte. Makilatu ere inoiz ere ez; hori udatiarren kontua izango zen. Ez zen ile-apaindegirik egoten Elantxoben. Batzuk Lekeitiora joaten ziren. Argala zenez, baina-makilarekin konparatzen zuen ahizpak.

22. Ur bila iturrira; ikatza gabarran heltzen zen (ELA-002/034)

Ur bila txorroetara joaten ziren. Hiru iturri zeuden, eta arropa garbitzeko tokia portuan zegoen. Gerra denboran ikatzik ere ez zegoen eta Ogoñora joaten ziren egurretan. Lekeitioko Txakartegirenekoek eramaten zuten ikatza gabarran Elantxobera, itsasgoran. Hortik banatzen zen etxeetara eta inguruko herrietara.

23. Kriseiluak argituta (ELA-002/035)

Elektrizitaterik ez zuten etxean. Kurtzulua (kriseilua) arrain olio betetzen zen. Irratirik ere ez zuten izaten. Bilbotik etortzen zenak ematen zuen gertatzen zenaren berri. Etxe batzuetan "El Correo" irakurtzen zen, "Hiero" ere ekartzen zuen baten batek Bilbotik. Telebista geroagoko kontua da.

24. Goiz ohera (ELA-002/036)

Gauetan etxean, puntua, josi, sareak konpondu batzuek, beti egoten zen zeregina; eta goiz ohera.

25. Gabonetako menua (ELA-002/038)

Gabonetan beti egoten zela bisigua gogoratzen du. Aza-olioa, karakolak eta bisigua jaten zituzten Gabonetan; turroirik ez zen egoten, poteko melokotoia, tostadak edo arroz-esnea bai. Familia elkartzen zen. Afalostean gizonek kartetan egiten zuten. Natibitate egunean zopa, garbantzuak eta haragia tomatetan edo piperrekin jaten ziren.

26. Oparirik ez (ELA-002/039)

Erregeetan, hiruzpalau pikupasa edo gozokiren batzuk izaten zituzten. Oparirik ez zen egoten Erregeetan; urtebetetzeetan, batzuetan, behar zen zerbait (abarketak...) oparitzen zen. Oraingo biloben kontuak kontatzen ditu.

27. Gabonetako ogia (ELA-002/040)

Ez du gogoratzen ondo: Gabonetan, mahaia bedeinkatu, ogiari muin eman eta gurutzea gainean egin eta gorde egiten zen, baina ez du gogoratzen non edo nola.

28. "Mesedez" dantza eskatzeko (ELA-002/043)

Senar-emazteek domeketako erromerian ezagutu zuten elkar. Senarra Ibarrangelukoa zen, eta Elantxobeko erromeriara joaten zen. "Mesedez" eskatzen zuten dantzarako.

29. Akordako kanposantuan: hil eta gero ito (ELA-002/045)

Senarrak ez zuen nahi Akordan hobiratzea. Haren esanetan, Akordako kanposantuan hil eta gero ito (oso behean dagoelako).

30. Lekeition "bainak" urte guztian (ELA-002/047)

Inguruko herrietako euskara ez da desberdina, Lekeitiokoa bai. Lekeition "baina" errepikatzen dute, eta Elantxobeko esana da Lekeition urte guztian jaten dituztela bainak. Elantxobeko euskara kostaldekotzat identifikatzen dute beste herrietakoek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com